

ESTABLEZIMENTU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. HOTELAK. 2021EKO URTARRILA

Hotel-establezimenduetako okupazioak % 70etik gorako urte arteko jaitsierak izaten jarraitu du urtarrilean Euskal AEn

Hotel-establezimenduen % 42,7 itxita egon dira 2021eko urtarrileko egun guztietan, eta ehuneko 1,6 puntu gairitu da 2020ko abenduak ehunekoa

2021eko urtarrilean 89.087 gaualdi izan dira Euskal AEko hotel-establezimenduetan, 2020ko urtarrilean baino % 72,2 gutxiago. Sarreraren urte arteko beherakada % 71,6koa izan da, eta 2021eko urtarrilean 49.181 sarrera izan dira, Eustatek landutako datuen arabera.

Lurraldeei dagokienez, Araban 2021eko urtarrilean % 63,3 jaitsi dira sarrerak 2020ko urtarrilaren aldean, eta % 62,1 gaualdiak. Bizkaia eta Gipuzkoaren kasuan, urte arteko jaitsierak Euskal AEko batezbestekotik gertuago daude. Bizkaian, sarrera-kopurua % 73,8 jaitsi da, eta gaualdiena, % 73,1. Era berean, Gipuzkoan, 2021eko urtarrilean, aurreko urteko hil beraren aldean, sarrerak eta gaualdiak % 71,8 eta % 74,8 jaitsi dira, hurrenez hurren.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak, gaualdiak, batez besteko egonaldia. 2021eko Urtarrila

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez besteko egonaldia	
	2021/01	m/m-12 (%)	2021/01	m/m-12 (%)	2021/01	2020/01
EUSKAL AE	49.181	-71,6	89.087	-72,2	1,81	1,85
Estatukoak	39.099	-65,9	70.056	-66,3	1,79	1,81
Atzeritarrak	10.082	-82,8	19.031	-83,1	1,89	1,92
ARABA/ÁLAVA	8.621	-63,3	16.951	-62,1	1,97	1,91
Estatukoak	6.932	-63,2	13.393	-62,4	1,93	1,89
Atzeritarrak	1.689	-63,7	3.558	-60,9	2,11	1,95
Vitoria-Gasteiz	7.615	-58,1	15.368	-57,3	2,02	1,98
BIZKAIA	21.890	-73,8	41.350	-73,1	1,89	1,84
Estatukoak	19.000	-65,8	34.778	-65,1	1,83	1,79
Atzeritarrak	2.890	-89,7	6.572	-87,8	2,27	1,93
Bilbao	14.051	-76,6	23.863	-78,1	1,70	1,82
GIPUZKOA	18.670	-71,8	30.786	-74,8	1,65	1,84
Estatukoak	13.167	-67,3	21.885	-69,9	1,66	1,81
Atzeritarrak	5.503	-78,8	8.901	-82,0	1,62	1,90
Donostia / San Sebastián	10.546	-75,0	15.769	-79,9	1,50	1,86

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Ohiko bizilekua atzerrian duten bidaiarien sarrerak eta gaualdiak gehiago jaitsi dira: % 82,8 eta % 83,1, hurrenez hurren. Estatuko sarreraren eta gaualdien kasuan, kopuruak apalagoak izan dira: 2020ko urtarrilaren aldean % 65,9 jaitsi dira sarrerak eta % 66,3 gaualdiak.

Aurreko hilabetearekin, 2020ko abenduarekin, alderatuta, bai sarrerek bai gaualdiek gehikuntza txikiak izan dituzte kopuru absolutuetan Euskal AE osoan: 7.353 sarrera eta 10.301 gaualdi gehiago 2021eko urtarrian 2020ko abenduan baino.

Batez besteko egonaldiak ere behera egin du aurreko urteko urtarriaren aldean: orduko 1,85 egunetik aurtengo 1,81era. Lurraldeei dagokienez, beheranzko joera Gipuzkoan nabari da, 2020ko urtarriko 1,84 egunetik 2021eko urtarriko 1,65 egunera jaitsi baita. Bizkaian eta Araban, aldiz, gorakada txiki bat izan da. Bizkaian 2020ko urtarriko 1,84 egunetik 2021eko urtarriko 1,89 egunera igaro da, eta Araban aurreko urteko urtarriko 1,91 egunetik egungo 1,97 egunera.

Itxita mantendu diren hotel-establezimenduak (%). COVID19 aldia

	EUSKAL A.E.			ARABA/ÁLAVA			BIZKAIA			GIPUZKOA		
	2021	2020	2019	2021	2020	2019	2021	2020	2019	2021	2020	2019
Urtarrila	42,7	18,2	16,9	41,3	18,7	18,7	38,8	16,2	14,1	46,0	19,7	18,6
Otsaila		15,1	16,7		16,0	21,3		15,0	13,7		15,1	17,9
Martxoa		14,1	10,5		17,3	14,7		12,7	8,7		14,3	10,8
Apirila		91,0	5,7		92,0	13,3		87,7	3,5		93,2	5,6
Maiatza		69,6	6,7		73,3	12,0		66,1	4,7		71,3	6,9
Ekaina		39,8	5,9		38,7	9,3		40,0	5,6		39,9	5,2
Uztaila		17,6	5,4		26,7	9,3		18,3	4,7		14,9	4,9
Abustua		14,2	5,1		26,7	9,3		14,0	4,3		11,3	4,6
Iraila		15,5	4,9		28,0	9,3		16,5	4,7		11,7	3,9
Urria		20,2	6,3		29,3	9,3		20,4	5,1		17,9	6,6
Azaroa		38,4	10,6		36,0	9,3		34,3	10,7		42,2	10,8
Abendua		41,1	12,2		36,0	13,3		38,4	11,5		44,4	12,5

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Hileko egun guztietan itxitako hotel-establezimenduen ehunekoaren bilakaerak agerian uzten du 2020ko martxoaren amaieratik aurrera COVID-19ari aurre egiteko hartutako murrizketek eragina izan dutela hotel-sektorean. 2020ko apirilean, alegia pandemian bizi izandako murrizketarik gogorrenak izandako hilabeteetan, itxita egon zirenen % 91,0ko zifratik eboluzionatzen joan da azken hilabeteetako mugikortasun-egoeren arabera. Hasierako inpaktuaren ondoren, establezimenduak era jarraituan ireki zirela ikusi zen, 2020ko udara arte, noiz hotelen % 15 inguru itxita egon baitziren. Harrezkero, hurrengo hilabeteetan, hotel-establezimenduak pixkanaka itxi direla ikusi da, eta 2021eko urtarrian % 42,7ra iritsi da.

Okupazio-mailek, urtarrian jarduerarik eduki duten hotel-establezimenduen eskaintako plazen eta logelen arabera kalkulatuak, ehuneko 24,4 eta 28,6 puntuko jaitsierak eduki dituzte 2020ko urtarriarekiko, hurrenez hurren; eskaintako plazen arabera okupazio-maila % 14,0koa izan da, eta eskaintako logelen arabera okupazio-mailaren kasuan, % 20,0koa. Lurraldeka, Gipuzkoak izan du jaitsierarik handiena, bai plazen arabera okupazioari dagokionez (2020ko urtarrian erregistratutakoa baino ehuneko 27,7 puntu txikiagoa), bai eskaintako logelen arabera okupazioari dagokionez (ehuneko 31,9 puntu txikiagoa), urte arteko datuetan. Gehien kaltetua izan den hiriburua Donostia izan da urtarrian; plazen eta logelen okupazio-mailak ehuneko 33,6 eta 37,4 puntu jaitsi dira, hurrenez hurren.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako betetze-mailak eta errentagarritasuna. 2021eko Urtarrila

	Betetze-mailak (%)				Errentagarritasuna			
	plazaka		gelaka		ADR (eurotan)		RevPar (eurotan)	
	2021/01	p.p.*	2021/01	p.p.*	2021/01	m/m-12 (%)	2021/01	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	14,0	-24,4	20,0	-28,6	59,07	-13,8	11,82	-64,5
ARABA/ÁLAVA	17,8	-20,8	26,0	-25,0	54,68	-3,3	14,21	-50,7
Vitoria-Gasteiz	19,8	-20,1	29,2	-25,1	54,39	-0,1	15,87	-46,3
BIZKAIA	13,3	-23,2	19,6	-27,4	57,39	-18,0	11,26	-65,8
Bilbao	12,4	-28,2	18,0	-32,7	61,44	-16,4	11,03	-70,4
GIPUZKOA	13,4	-27,7	18,2	-31,9	64,04	-10,2	11,62	-67,4
Donostia / San Sebastián	13,4	-33,6	17,6	-37,4	75,68	-8,4	13,32	-70,7

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Errentagarritasun-adierazleek ere osasun-krisiak hotelen sektorean izan duen eragina islatzen dute. Ezarritako ADR edo eguneko batez besteko tarifa 59,1 €-tan kokatu da 2021eko urtarrilean, hau da, % 13,8ko jaitsiera 2020ko urtarrilaren aldean. Lurraldeei dagokionez, Bizkaiak izan du jaitsierarik nabarmenena, % 18,0ekin. Hiriburuen kasuan, Bilbo nabarmentzen da, % 16,4ko beherakadarekin. Donostiak erakusten du magnitude horren baliorik handiena, 75,7 €-koa.

RevPar deritzonari, Logela eskuragarriko diru-sarrerari, dagokionez, % 64,5 jaitsi da Euskal AEn oro har, eta 11,8 €-tan ezarri da. Lurraldeen arabera, ikusitako jaitsierak izan dira Araban % 50,7koa, Bizkaian % 65,8koa eta Gipuzkoan % 67,4koa. Hiriburuetan, jaitsierak izan dira % 46,3koa Gasteizen, % 70,4koa Bilbon eta, azkenik, % 70,7koa Donostian.

Informazio-oharra

2021eko urtariletik aurrera, inkesta honetako (ETHI-H) datuak bi zatitan zabalduko dira. Lehenik eta behin, hotel-establezimenduei buruzko datuak argitaratuko dira (aurrerantzean, ETHI-H) eta, egun batzuk geroago, gauza bera egingo da inkestan sartutako gainerako establezimenduei buruzkoekin (aurrerantzean, ETHI-Hie); gaur egun horiek dira Landetxeak –nekazaritza-turismoko establezimenduak eta landetxeak– eta kategoria guztietako Apartamentu Turistikoak.

Eustatek inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei eskerrak eman nahi dizkie egindako ahaleginagatik, nahiz eta gaur egungo egoera ezohikoa izan. Haiei esker, % 96,5eko estaldurarekin, informazio hau zabaltzeko ahal izan da, zeinek aukera ematen baitu kuantifikatzeko COVID-19ari aurre egiteko hartutako neurriek sektorean izan dituzten ondorioak.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tf: 945 01 75 62